This winter gone saw the final book in part of the Universal Winter Collection by publishing companies EIZIE and Ibaizabal. That book was none other than Shakespeare's "Hamlet". We say "part of" because the Universal Literature Collection carries on, albeit in different form and presentation. The two publishers, Alberdania & Elkarlanean, have taken the job of working on and translating new books upon themselves. Book 101 – number 1 in the new series – is by Bohumil Hrabal from Moravia. The book is called "Zorrotz Begiratutako Trenak". Bohumil is more known to us for his work in cinema than he is for his writing. The film version of this book won an Oscar in 1967. The main characteristics of the writing in this book are dark irony and harsh crudeness. The book begins with the rubble-filled landscape of war and, as in the comings and goings of trains, moves onto describe words, dialogues and incidents. We haven't smiled such terrible smiles of complicity since Agota Kristof's "Koaderno Handia". The author observes everyday life in the same manner he watches trains. You won't regret choosing this book.



samus-en itzulera game cube. nintendo.

Martxoaren 28an kaleratuko da Europa osoan Metroid Prime, Samusen abentura berria. Itzulera oso arrakastatsua kritika eta bideojoko zaleen hitzei kasu egiten badiegu. Bideojoko aldizkari guztien aburuz 10 puxtarriko (points) itzulera.

the return of samus game cube. nintendo.

Samus's latest adventure, Metroid Prime, hits Europe on the 28th of March. Guaranteed success by the sounds of things (everyone's going nuts over this game). A serious ten-pointer in all the game mags. What a return!



milioika kotsola munduan zehar

millions of consoles all over the world

Sonyk munduan zehar, bere PS2 kotsolaren 50.000.000 unitate banatu dituela esan du. AEBtan 21 milioi, Europan 16 milioi eta Japonian 12 milioi. Gogorarazi beharra dago, misilak gidatzeko balio dezakeen txipak dituela barneraturik eta horrek, beharbada, milioika haurren aitaxo koronelek, kotsola erosteko erabakian lagunduko zuen.

Microsoftek bestetik, bere kotsolaren 8 milioi Xbox saldu dituela esan du, urte bete pasa denean merkatura ateratu zenetik.

Sony claims it has sold 50,000,000 PS2 consoles worldwide. 21 million in the States, 16 million in Europe and 12 million in Japan. Don't forget that these things have chips in them capable of guiding missiles. Maybe that was why millions of Sergeant-Major daddies snapped up the console for their brats.

Microsoft says it has shifted 8 million units of its Xbox in the little over a year it has been on the market.

pokemon and the stock market



The two new recently released Pokemon games for Game Boy Advance have sold two million copies in Japan. These sales have boosted Nintendo on the Japanese Stock Exchange. Seems likely that the new Pokemon will have plenty of media and economic pull when it hits Europe and the States.

pokemon eta burtsa

Japonian Game Boy Advance kotsolarako ateratu berri diren Pokemonen bi joko berrien 2 milioi kopia saldu dira. Honek, Nintendok Japoniako burtsan duen kotizazioari bultzada nabarmena eman dio. Badirudi Pokemonen abentura berriek zer esan mediatiko zein ekonomiko garrantzitsua izango dutela Europan eta AEB-tan kaleratzen direnean.






a new sony pocket console

According to a report in an American magazine, Sony could be on the verge of releasing a new pocket-sized console. It's Nintendo's market at the moment, so a little competition would benefit us all. Let's hope there's an improvement in quality and price. Sony have neither denied nor confirmed the news. All the same, they do have year's of experience when it comes to pocket-sized gadgets...Walkman, Discman...

poltsikozko sony kotsola berri bat?

AEB- tako aldizkari baten esanetan, Sonyk poltsikozko kotsola berri bat ateratu lezake. Nintendok kontrolatzen duen merkatu honetan, guztion onerako izango den kompetentzia sortuaz. Ea kalitatearen eta salneurrien hobekuntza nabarmena ekartzen duen guzti honek.

Sonyk ez du baieztatu ezta ukatu ere, beraz... Gainera Sonyk badu poltsikoetan eramatekoak diren gauzetan urtetako esperientzia...Walkman, Discman...




super ario sunshine

eus. !

◀ gamecube. 1 player.


Prestige aferaren gatazka gainditzeko, Mariok, Galiziako kostaldeak garbitzeko tresna apartaz baliatzen da joko honetan. Ikusitakoak ikusita,urteak aurrera joan arabera, Mario zahartu beharrean geroz eta gazteago agertzen zaigu, baita trebeago eta arinago ere. Marioren atal honetan, merezitako oporrak lan pila batean bihurtzen dira antiMario baten eskutik. Bere betiko adiskide eta arerioak agertzen dira eta gure zorionerako betiko Txanpiñoi erregea gure alde azalduko da. Gora Txanpiñoi erregea! Gora Mario! Gora Miyamoto!



eng. !

Mario uses some great gear in this game that would come in very handy to clean up the Galician coasts blackened by the Prestige. Mario just seems to get younger instead of aging. He's fitter and more skilful than ever. This time round, Mario's well-deserved holidays are put on ice when another AntiMario turns up on the scene.

All the usual friends and foes make an appearance throughout the game. To our delight the Mushroom King takes our side. Long live the Mushroom King! Long live Mario! Long live Miyamoto! Go on yez boyos!!



Euskal rockak eman duen ahotsik pertsonalenak bakarkako lehen diskoa kaleratu du "Onna" izenburupean. Inguruko hainbat musikari alboan zituela -Kashbad-eko bere taldekide ohiak-, Fermin Muguruza edo Xabi Strubell, rockaren uhinak sutan datoz.



Nola sortu zitzaizun bakarrik diskoa kaleratzeko ideia?

Kashbad-ek jotzeari utzi zionean, inguruko jendeak bakarrik zerbait kaleratzeko animatzen ninduen. Nire aldetik, Ferminen bigarren lana, Dub Manifest aurkezten genbiltzala konbentzitu nintzen. Orduan hasi nintzen idazten, inoiz egin ez nuen zerbait zen. Testu batzuk idatzi nituen eta abestiak osatzeko moldatu nituen gero.

Euskaraz abesteaz gain arabieraz eta ingelesez ere kantatzen duzu lan honetan...

Lehen aldiz egiten dudan zerbait da ingelesarena. Bad Brains-en bertsioren bat egina nuen aurretik. Kontua uste baino errazagoa izan da. Abestia Rout 66 AEBtako errepide mitikoan egindako irudimen bidai bati buruzkoa da, horregatik uste nuen ingelesez abestia izan behar zuela.

Diskoko azaletik hasi eta musikaraino ematen duzun irudia nahiko kañeroa da.

Betikoa dela uste dut. Kolaboratzaile eta ekoizleekin hitz egiten nuenean jendeak buruan Atari Teenage Riot izatea eskatzen nuen. QOTSA, Turbonegro, Atari Teenage Riot, rollo hori. Buruan kontzeptu hori izatea proposatu nion jende guztiari.

Musikatik aparte beste proiektu batzuekin ere animatzen zara. A Deshoras-ekoen azkenetariko obra batean, SODAPOPOP-en parte hartu zenuen.

Antzerki, dantza garaikide edo horrelako gauzetan kolaboratzea oso interesgarria iruditzen zait. A Deshoras-koa adibidez oso interesgarria izan zen. Lan asko egin genuen abestia sortzerakoan eta oso dibertigarria izan zen. Bestelakoan, asko gustatuko litzaidake film batetarako musika egitea.



Sorkun is easily one of the most individual voices on the Basque rock scene and she's just released her first solo record "Onna". She recorded the album with local musicians like members of the band she used to play in, the now-disbanded Kashbad, Fermin Muguruza and Xabi Strubell. Wave after wave of fiery rock.

What made you record a solo album?

When Kashbad called it a day, some people I know got at me to do something on my own. I finally decide I would while I was touring with Fermin on the tour to promote his Dub Manifest album. I started writing some stuff, something I had never done before, and, well, I had these lyrics and I started building songs around them.

You sing in Arabic and English as well as in Basque...

It's actually the first time I've done anything of my own in English. I had previously done a version of a Bad Brains song. It was easier than I thought it was going to be. The song is about an imaginary trip down the mythical Route 66 in the USA. I just felt that it should be sung in English.

You come across as being quite tough. The image you give off from the sleeve to the music is pretty strong stuff.

The same image as always as far as I'm concerned. When I spoke to the producers and musicians, I asked them to think of Atari Teenage Riot. The same image as always as far as I'm concerned. When I spoke to the producers and musicians, I asked them to think of Atari Teenage Riot. You know, QOTSA, Turbonegro, Atari Teenage Riot and that kind of buzz. I asked them all to get into that kind of musical vibe.

Apart from the music, you also been involved in other things. You had your hand in Sodapop, one of A Deshoras latest creations.

I'm really into doing things in theatre, contemporary dance and stuff like that. The whole A Deshoras thing was really interesting. We did a lot of work getting the song together and it was a really enjoyable experience. What I'd really like to do is a film soundtrack.



SorKun

soinu bandak eta atari teenage riot
soundtracks and atari teenage riot

Joan den urteko rockaren ezustekorik interesgarriena Eibartik dator. Kaleratu berri duten lehen olatua sei abestik osatzen dute, eta horiekin batera bideoklip bat dakarte. Formak argi daudenean sormenak ez du mugarik.

Lehen diskoa kaleratzeko hainbat pausu eman dituzue...

Aspalditik ezagutzen dugu Gaztelupeko Hotsak zigituko jendea. Haiei proiektua erakutsi eta gustatu ostean Pilt-ko Rafa Ruedarekin jarri gintuzten kontaktuan. Honekin lan antolaketa bat egin eta ekainean lehen singlea kaleratu genuen Xanperen ekoizpenarekin. Forma berdinarak erabiliz udaran grabatu genuen diskoa, Garaten nahastua Haritz Harreguy-ren laguntzarekin.

Kukka, Ehun Kilo, Kafha eta Luther-en ibiliak zarete taldekideak, haien artean ezberdinak izanda, nola moldatzen zarete musikari bidea emateko. Talde horiek gure erreferentzi dira, baina beste musika mota batzuk ere entzuten ditugu, eta sorkuntzan batzutan tirabirak izan harren nahiko irekiak gara. Gainera proiektuari hasiera eman genionean taldea sortzean musikalki helburu bat zegoen: funkya egitea, gero apur bat aldatu dena, baina zentzu horretan gauzak nahiko argi genituen.

Abestiez gain bideo bat ere aurki daiteke zuen diskoan.

Bila ibili ez ginen gauza bat da. Kasualitatez sortu zena. Abestiez gain irudiak sartzeko aukera zegoela ikusi genuen. Iñaki Beraetxek proposatu zuen, eta Haimar Olaskoagarekin batera burutu zuen bideoklipa.

Kasualitateak sortua baina kalitatea duena.

Haimarrek ikuspuntu zinematografikoa du eta hortik hasita lan handia egin duela uste dugu. Gainera horrek ere bultzatu gintuen bideoa kaleratzerako orduan, ez genuen zerbait estétikoa izaterik nahi, istorio bat kontatzen da bertan.

One of the most pleasant surprises in rock last year comes to us from Eibar. Six songs make up their first record, and they've thrown in a video clip for good measure. When you know how to do what you want, there's no limit to what you can come up with.

There was a whole process you went through before you released your first record.

We've known the people from the record company "Gaztelupeko Hotsak" for ages. We showed them what we were at and they liked it, so we got in touch with Rafa Rueda from PILT. We did some stuff with him and we released our first single in June. Xanpa worked on production. We did the same for the record in the summer. We mixed it with Haritz Harreguy in Garate.

All of you have been in other bands like Kukka, Ehun Kilo, Kafha and Luther. These bands have little in common with each other. How did you overcome your musical differences to come up with the record?

These bands are all a reference for us, but we also listen to different types of music. We don't always agree but we're really fairly open to anything. When we started the band, we had one thing in mind and that was funk. Things have changed a little since then, but we were pretty sure about what we wanted.

Apart from the song, there's also a video on the record.

That wasn't something we had planned to do. It just sort of happened. We realised we could stick a video on the record. It was Iñaki Beraetxe's idea and he did it with Haimar Olaskoaga.

Planned or not, it's certainly quality stuff.


Haimar has a great cinema head on his shoulders and we think he's done a great job. That's why we included it on the record. I mean, we didn't want some kind of visual candy that looked nice, we wanted to tell a story.



KoKein

itsasoak badu esperantzarik
there's hope for the sea yet





AUDIO



DAVID HOLMES

David Holmes presents the free association

Michael Jackson-en ispiluko irudia bailitza, David Holmes-ek beltza izan nahi du. Eta argitaratu dituen azken lanen arabera, "Come get it I got it" soul Dj sesio hura eta "DH Presents the Free Association", gutxi falta zaio bere helburua lortzeko. Zinerako giroak sortzeko duen zaletasuna erakutsita ("Ocean's Eleven") oraingoan abeslariak bilatu ditu bere ekarpen berriak kanta ditzaten, eta bete-betean asmatu du. Batetik eskola zaharreko rapeatzaile bat, Sean Reveron, esaldiak erritmo bihurtzeko aparteko gaitasuna duena. Bestetik Petra Jean Phillipson, Holmes-ek deskubritu duen azken altxorra, zeinen ahotsean "Wooden heart" izeneko elektro-blues pozoidunak Tricky-ren lehen diskotik ahaztuta genituen hotzikarak eragiten dituen. Rap eta Trip Hop musikak asmatu berriak ez diren arren gutxitan eman dute lan honetakoen tamainako abestirik. Dena den eta "abestia" kontzeptua izanik ere luzatzen digun proposamena, erne Dj zale zaren hori irlandar bihurriak egiten duenari.

It's a bit like a mirror image of Michael Jackson, David Holmes wants to be black. And if his last two records, soul DJ session "Come get it I got it" and "DH Presents the Free Association", are anything to go by, he's not far off the mark. He's already shown his interest in recording music for cinema ("Ocean's Eleven") and, well, this time round he's rounded up a bunch of singers to warble on his new songs. He's certainly got a great eye for singers. On the one hand, we have old-school rap giant Sean Reveron. This guy can really make a rhythm out of a line. Then there's the latest treasure that Holmes has dug up: Petra Jean Phillipson. Her vocals on the venomous electro-blues track "Wooden Heart" will give you the goose pimples you haven't felt since Tricky's first record. Although rap and trip-hop are not new on the scene, you very rarely come across songs as good as these ones. A wee word for those of you DJ fans out there, check out this guy's idea of a song because when this restless Paddy is on form.

asier leoz

BETH GIBBONS & RUSTIN MAN

Out of Season

Rustin Man ezizenaren atzean Talk Talk taldeko baxularia zena dugu, Paul Webb. Bera izan du lagun Portishead-eko abeslariak kaleratu berria duen lan honetan. Trip Hop musikaren erreferentzi-taldearen ezaugarri nagusia Beth Gibbons beraren ahotsa zen, ahots horrek zuen indar emozionala zehazkiago. Batzuetan mina sentitzen zuela ematen zuen, ahots kordak baino bihotza urrututa izango balu bezala, eta ondoren, kantu berean, irribarrea antzematen genion, alderdi dramatikoak areagotuz. "Out of season" izeneko honetan altxaldi nagusiak hori izaten jarraitzen du, Portishead formularen aparteko garrantzia zuten Geoff Barrow-ren oinarri elektronikoa ilunak baztertu badira ere. Oraingoan "Mysteries" bezalako abestiak aurkituko dituzu, geldoak, hauskorak eta zine musika klasikoaren eraginean blai, edo pop moduko emaitza borobila den "Tom the model" hori. Eta gauza guztien gainean, jakina, Beth Gibbons: Shirley Bassey edota Billie Holiday berari lekukoa hartzeko gauza den abeslari bakarra, seguru asko.

Talk Talk bass player Paul Webb is the man hiding behind the name Rustin Man. He accompanies Portishead lead singer on her new release. Beth Gibbons' voice, or the emotional strength of her voice, was what stood out in Portishead, one of the most acclaimed trip-hop bands. Sometimes you got the impression she was in pain, it was her heat and not her vocal chords that were straining. But then you'd catch a glance of a smile halfway through the song which just made it all the more dramatic. This element of her singing is the best thing about "Out of Season" as well, although she's missing the dark electronic back-up supplied by Geoff Barrow, so vital to the Portishead sound. You'll find songs like "Mysteries", slow, fragile and drenched in classical music as heard in the movies or the nicely rounded-off pop tunes like "Tom the Model". But Beth Gibbons' is the best thing about this record. She's probably the only singer around that can match Shirley Bassey or Billie Holiday.

asier leoz

MS DYNAMITE

A little deeper

Dirudien azkenaldian aurrera pauso gehien ematen ari den musika R&B beltzan bustitako Hip hop-a da, emakumezkoa batez ere, Alicia Keys, Missy Elliot eta Ms Dynamite berriaren bitartez bata bestearen atzetik estilo osoa berfinkatzen ari direnak disko bikain mordoxka baten eskutik. Naomi McLean-Daley-ren kasuan, proposamena Ingalaterratik dator, normalean AEB-tik oso atzetik dabilena kontu hauetan, eta beldurrik gabe esan daiteke 2002 osoak utzitako hamar disko onenen artean dagoela. Ms Dynamite-ren ahotsa, Lauryn Hill-enaren oso antzekoa, tradizioan errotuta dago, jamaikar kolorez tarteka (Kymari Marley du gonbidatu) eta Soul hitza handia egin zuten haiekin guztiekin zorretan. Fugees taldearen diskoa ekoiztu zuen berak egindako lana aipatzekoa da diskoa benetan berria gerta dadin, baina Ms Dynamite izan da "Watch over them" gordina a capella kantatuz edo "fucking" hitzari inoiz izan ez zuen gozotasuna emanez ("No U want my love") diskoa gomendatzeko modukoa bihurtu duena.

It seems that hip-hop laced with black R&B is the music that's cutting most new ground these days, especially the lady vocalists. English artist Naomi McLean-Daley aka Ms Dynamite is a clear example of what I'm on about. The Brits are normally well behind the Yanks at this game, but you can safely say that McLean's record is among the best ten records released last year. Ms Dynamite's voice, very like Lauryn Hill's, is smoked in tradition with a little bit of Jamaica thrown in (Kymari Marley guests on the record) for good measure. Add a touch of soul in big capital letters and mix it all together. Hats off to the producer who has managed to make this record fresh sounding. The same producer worked with the Fugees. All the same, most merit goes to Ms Dynamite, listen to her sing a capella on "Watch over them" or the sweetness she gives to the word "fucking". Never heard anything like it before ("No U Want My Love"). I'd recommend the record for this song alone.

asier leoz

NIZA

Canciones de temporada

Gogoratzen Nosotrash eta Los Fresones Rebeldes? Edo, sustraira heldu gaitezen, gogoratzen Mecano? Ba horiek dira koordinadarik zehatzenak eskuartean daukagun diskoa mapan finkatzeko Niza madrildarren lehenengoa den "Canciones de temporada" izeneko hau azken arrastoraino dago pentsatuta. Lan osoak urtea irudikatuko balu bezala, hamabi abesti dauzka. Lehen zatikoak Pop egitura bikaina duten abesti biziak eta bigarrenekoak udazkenaren zama emozional horren baitan daudenak, malenkonia celloak erabiliaz dibujatuta. Guztietan Silviaren ahotsa da haria, gurean hain ondo ezagutzen dugun kristalezko tonu fina erabiliaz, eta haietako bi instrumentalak dira, diskoaren erdia eta bukaera markatzen dutenak "Solsticio de verano" eta "Solsticio de invierno" izenburu egokiekin. Bikote hausturak xalotasun ukitu batekin, Antonio Carlos Jobim-i eta Cezanne-ri keinuak eta Tropicalia garaiko akorde epelek diskoa benetan atsegina egiten dute.

Do you remember Nosotrash and La Fresas Rebeldes? Let's dig a little deeper, remember Mecano? Well, the lot mentioned are probably the handiest reference points to suss out this debut record by Madrid-based Niza called "Canciones de Temporada". The 12 track album conjures up the image of the very same year. The songs on the first side are bubbly pop-songs whilst those to be found on the other are brimful of Autumn emotion brought on by the use of cellos. Silvia's vocal work really stand's out on the record. She sings in a lovely crystal clear type voice that won't sound unfamiliar too us. There are two instrumentals which mark the end of side one and two; "Solsticio de verano" and "Solsticio de invierno". They are aptly named. The songs are filled with the candour of a recently split-up couple and there's a nod of acknowledgement to Antonio Carlos Jobim and Cezanne. The warm Tropicalia-era chords make this a really pleasant record.

asier leoz



iritegi koba
iritegi cave

Ibon Aranberri Deba-Itziarren jaio eta Bilbon bizi den artista da.

Bere lanean, sakonki mediatizaturik dagoen imaginario arrunt baten parte diren erreferentzien zentzu ikonografiko, historiko eta pertzeptiboan aldaketak proposatzen ditu.

Objektu, irudi, natura oso sinboliko batez definitutako paisaiekin (bertakoak askotan) eta gertaerekin, orain amaitutakoak baina oraindik ere memoria kolektiboan bizirik daudenak, Aranberri legoerak aurre-ezarriko dituzten erantzun berriak sortzen ditu.

Bere ekintzek prozesu bat aktibatzen dute, beti emandako leku eta eraikitako denboraren kondizio sozio-politiko eta kulturalen menpe daudenak, eta imaginario generiko eta unibertsalago batean azaltzea gaitzesten dute.

Ibon Aranberri was born in Deba-Itziar and actually lives in Bilbo.


In his work Ibon Aranberri proposes alterations of the iconographical, historical and perceptual meaning of references that form a part of an intensely mediatized common imaginary.

Through his work with objects, images and landscapes – quite often local – defined by a highly symbolic nature, and by means of past events, now inactive yet still present within collective memory, Aranberri generates new responses to pre-established situations.

His interventions activate a process that is always dependent upon the socio-political and cultural conditions of the given place and time in which it is produced and upon the audience it addresses, despite being related to more generic and universal imaginaries.

testua / by: alex mitxelena
argazkiak: asier larraza





Ibon Aranberri has built his latest creation in a cave. He started off with a map, found a cave and built a line outside it. A built line, a built metaphor.

"I was looking for a cave, something suitable for what I was thinking about. Somewhere away from the city, somewhere surrounded by nature. That's when I found this place in Iritegi."

He's shut the cave off with a metal sheet. The cave itself has dictated the cut of the sheet, there are no superimposed edges. Nature in the shape of the cave outline has dictated the form. The place where the sheet is hung is half in and half out of the cave. The design takes shape where the metal meets stone. There are no notions of traditional aesthetic design nor is it meant as a work of art.

"The symbolic and anthropological relationship with the "feel" of this place came later. I must say that it was really quick from the start."

Working that middle ground cuts up the space here. It defines both the inner and outer shells. The audience loses perspective of that interesting middle-ground and this enables them to capture everything as a whole and thus, see both sides. The steel sheet joins the inner depth with the vastness of the exterior. We don't see any sculptures. There is no definite object impressed upon us. Seen from the outside, it's a distorted version of a point found in nature. It becomes the setting's mediation. The positioning is symbolic in this society of ours that links the definition of identity with the land we live on.

Haitzulo batean eraiki du Ibon Aranberri bere azken interbentzioa. Kartografiatik hasita, hurbildu eta haitzuloaren kanpoko aldean marra bat eraiki du. Eraikitako pintzelkada, eraikitako metafora bat.

"Koba baten bila nenbilen, nire asmoetara egokitzen zena. Hiri eremuetatik at eta naturaz inguratua. Horrela aurkitu nuen leku hau, Iritegikoa."

Burdinazko xafla baten bitartez haitzuloa itxi du. Xafla honen ertzak ez ditu eskuak marraztu, naturak definitu ditu, harkaitzaren hormek. Izan ere, hau kokatzen den puntua erdi kanpoan eta erdi barruan dago. Definitutako planoak harkaitzekin topo egiten duenean hartzen du forma. Tradiziozko diseinu estetizatzaile edo artelan asmorik ez du.

"Gero etorri ziren haren erlazio sinboliko eta antropologikoak hemengo giroan. Baina esan dezaket abiapuntua oso arina izan zela."

Tarteko puntu honetan aritzeak espazioa zatikatzen du. Kanpo aldeko edo barrualdeko espazioak definituz. Erdiko gune interesgarri hori galtzen du ikusleak eta horrek bi alde hauek argi ikustera eta ulertzea darama. Xafla beltzak barruko zuloa eta kanpoaldeko handitasuna elkartzen ditu. Ez dugu eskulturarik ikusten. Ez da objekturik ezagutarazten. Kanpoaldetik naturan dagoen puntu baten distortsioa da. Tokiaren mediatizazio bilakatzen da. Informazioaren gizartearen haitzuloko sakontasunaren errepresentazio hutsa da. Objektuaren kokapena sinbolikoa da, taldeko identitatearen definizioa lurraldearen ideian oinarritzen den honetan.

"Noski, bizi garen testuinguruan horrelako edozer dago dentsitatez beteta, eta hori barnean daramagu. Horregatik nahi nuen tratatu azaletik, zuloaren sakontasuna neureganatu gabe. Ondorioz, berezko mito eta erlazio kulturalen gainetik, forma eta desiozko eraikuntza bat da. Kontatze soilarekin gure buruan irudikatzen dugun arketipo horietakoa da, ekintzan nik horren jarraipen bat ikusten dut, benetako eskalan jaso eta informazio bilakatzen dena."



"Yeah, sure, in the type of world we live in, there's this great density, and we carry that around with us. That's why I wanted to take a superficial look at it, I didn't want to touch upon the deepness of the hole. This is more than just a look at myths and cultural relationships, it's a building of desire and form. It's the type of thing that we identify with on hearing about it. I myself can see a following on here, something that can be assimilated on a natural scale."

BLAMI

BLAMI's work has no set props. It doesn't need any. BLAMI signs his name in capital letters. Just like freedom movements and guerrilla groups do. BLAMI. Anywhere, anytime...

Amongst others, he made a few direct attacks at the Sonar Festival in 2001 and at last year's Pop-Attack in Barcelona. His message, however, fits in just as comfortably in everyday life. You can find his drawings and iconography on street walls, t-shirts and on bits of paper or traffic lights.

BLAMI's works of art have a definite visual, musical and urban flavour to them. An art critic would call him "aesthetically and ethically provocative". But we're not having any of that crap. What makes something provocative? What cannot be denied is the playful and daring attitude present in its work. Whether you like it not, BLAMI proves that there's a place in society for this kind of thing.

BLAMIREN LANEK EZ DUTE EUSKARRI FINKORIK. EZ DUTE BEHAR EUSKARRI FINKORIK. MAIUSKULAZ SINATZEN DU. ASKATASUN MUGIMENDU ETA TALDE GERRILLEROEK EGITEN DUTEN MODUAN. BLAMI. EDOZEIN UNETAN ETA EDOZEIN TOKITAN...

jaialdian eta iazko Bartzelonako Pop-Attack-en egin zituen ekintza zuzenak. Hala ere, egunerokotasunean primeran txertatzen da bere mezua. Kaleko edozein ertzetan, kamisetetan, paper zatietan edota autobideko semaforo batean topa ditzakegu bere margo eta ikonografiak.

Kutsadura, musikal eta urbano nabarmena dute. << Estetiko eta etikoki probokatzailea da>> esango luke arte kritiko batek.

Guk ez dugu horretan sinisten. Zeren arabera, nondik abiatuta da zerbait probokatzailea? Ezin ukatu ordea, jarrera jostalari eta ausarta dutela bere ekintza/artelaneak. Nahita edo nahigabe, gizartean halakoetarako tokia dagoela aldarrikatuz.

blami goes to italy

BLAMI began an exhibition of his work at the contemporary art gallery 'Zuni' in Ferrara, Italy on the 25th of January. This exhibition runs to the end of February. Slam Jam and Loreak Mendian make the whole thing possible.

For info www.slamjam.it
www.loreakmendian.com
e-mail: info@slamjam.it



blami italiara doa

...Urtarrilak 25ean, Ferrarako (Italia) 'ZUNI' arte garaikide galeriak, Slam Jam eta Loreak Mendian-en eskutik, BLAMI artista donostiarren lanak jarri zituen ikusgai. Otsailaren amaiera arte bertan izango dira.

For info www.slamjam.it
www.loreakmendian.com
e-mail: info@slamjam.it



OTEIZA ES DIOS



gure giza gorputzean,
beste askotan bezala,



gure begibistatik at, urrun



ile eta azalatik
haratago...



atomoz osatuak gaude,
nukleo eta elektroiez...



aih!... oxigeno atomoa
izatea da guay! bai eta H₂O
molekula bat izatea ere!



zuekin bat,
hidrogeno gizajook,
bizitzaren oinarria
gara gu...



eta gizaki
batean egotea...
zoragarria da!



espezierik garatuena,
eta gu hori suspertzen...
mantentzen dugu!



eta denbora badoa...

bo! batek dahi,
beti dago zurrumurruren bat
han hemenka gabiltzala esanaz,
patuaren menpe...

ezin dut jasan
non gaudenaren
ezjakina, mar mar

gure
patua zein
ote !?

uhmmm...
nik ezagutzen ditut
esamesak... orakuluek erran
omen dute non garen,
zerrr garennn...

baina,
ahaso, ez zenuke
jakin nahi...

atx!

artelekuko lastozko lorategia straw flowerbed in arteleku.

iñigo segurola: paisajista*
juan iriarte: paisajista
alex mitxelena: arkitektoa
jon muñiz: paisajista

Artelekuko lastozko lorategia, lau bat urtetara, Urumea ibaiko erribera parkeko urbanizazio proiektuan kokatuko da eta beraz gaur egun duen izaera eraldatuko da. Lorategiak lau urteko iraupena izango du lorategi iragankorra izanik. Lorategiaren bizitza laburra, baldintza izatetik potentziallean bihurtzen da eta oizko lorategietan jorratu ez daitezkeen paisaia kontzeptuekin lan egitera bultzatzen gaitu.

Lastozko lorategian denboraren ideia landu dugu. Izan ere, paisaia ulertzeko garaian denbora da dimentsio garrantzitsua. Lorategi bateko elementuak denborarekin aldatzen dira, ahazten ala gain behera etortzen eta denboratasun hau eguneko epean (argia, eguzki-itzalak, busti-lehorra), denboraldi bakoitzeko epean (udaberriko loraldiak zein udazkeneko hosto kolore aldaketak), zein urteen joan etorrietan dugu.

Lastozko lorategia Artelekuko eraldaketarekin batera sortu dugu. 4.000 metroko azalera laua du eta bertan bi eremu desberdintzen dira, lastoaren eremua eta itzala ziurtatuko duten makalen eremua.

Lastoaren eremuan 800 bat lasto fardo jarri ditugu, lasto azalera laua eta zabala sortuz. Lastoa gaur egungo nekazaritza industrializatuaren hondakin antzua da. Baina denboraren joan etorriarekin lastoa usteldu eta lur emankor bilakatzen da. Lastoaren hasierako geometria eta ehundurak, lorategiaren urteurrena betetzera goazenean ustelzte prozesuari esker erabat eraldatu dira. Hasieran dena laua eta garbia zen baina udaberrian bertan landatutako kalabazek sortutako itzalari esker eta urte honetan egindako eguraldi hezeak bultzaturik lasto fardoak asko usteldu dira eta lasto azalera hondoratzen hasi da. Bertan, inork erein zein landatu ez dituen lorategiko lehen bisitariak azaldu dira ere. Hasieran, lasto artean hiru mota desberdineko perretxikoak hazi ziren, eta txori zein haizeak ekarritako hazietatik landare ezberdinak ermetzen hasi dira. Geometria eta ehundura berriak azaldu dira, inork aurreikusitako ez zituenak hain zuzen. Natura bere gisa espresatzen hasi da, eta hau zen lorategia diseinatzerakoan erabilitako irizpide nagusia. Ohizko lorategietan ez bezala lastozko lorategiaren mantenua naturaren esku uzten dugu eta bertan hazten hasi den landare orok espresatzeko ahaltasuna izango du.



ARTILEKULORATEKULORATEKU



The straw flowerbeds in Arteleku will be transferred to the planned riverside park on the banks of the river Urumea in about four year's time. They will obviously be quite different from the way they are now. The transitory garden will be with us for these next four years.

The short life of the gardens actually brings out its potential and makes us work with new concepts on how to envisage elements in this garden in a way you wouldn't consider with traditional flowerbeds.

In the straw flowerbeds, we have worked with the idea of time. The reason why is that time is the most important dimension of understanding what you're looking at. The elements of a garden change with the passing of time. They grow or whither and this is continually happening on different time scales: a day (light, sun-shade, dryness- wetness); in each season (flowering in Spring and leaves changing colour in Autumn) and in the comings and goings of every year.


We created the flowerbeds when we remodelled Arteleku. It's 4,000 metres squared and contains two different areas: the straw area and the one shaded by poplar trees.

In the straw area we've used about 800 bales to make a wide flat surface. Straw is the sterile offspring of today's industrialized farming. But straw rots with the passing of time and becomes fertile land. As we approach the first anniversary of the beds and the rotting process has started to kick in, the original geometry and texture has completely changed. In the beginning all was flat and clean, but the shade of the aubergines we planted in Spring and the wet weather this year have caused the bales to rot quickly. The surface is sinking. Things we never planted or tended have started to appear there. At first, three types of wild mushroom started growing and they were soon joined by different plants from seeds carried to us by the wind. New shapes and textures that nobody foresaw have appeared. Nature has started to express itself in its own way. That was what we most considered when we designed the garden. Unlike normal gardens, we leave the upkeep to nature and anything that starts growing, there will be free to do so.

ARTILEKULORATEKULORATEKU

URTEBETEKO HARPIDETZA ONE YEAR SUBSCRIPTION

9 EURO 6 ALE ISSUES



the balde. martzelo zelaieta 75, 13. bulegoa. 31014 iruñea
tel. fax: 948 121976 info@thebalde.net / www.thebalde.net

izen abizenak/name:

helbidea/adress:

herria/city:

postakodea/code:

herrialdea/province:

tel:


e-posta/email:

sinadura

bankua/bank:

kontu korrante zbkia/account number [20 digito-rib] :

norenak dira betaurreko hauek?




who owns these glasses?

La gran aventura de Mortadelo y Filemón

Azken urteotan komiki pertsonai askok salto egin du paperetik zine pantailera. Emaizta oso ezberdinekin gainera. Moldaketa hauetan, faktore askok izaten du eraginik. Askotan, istorioen moldaketan baino, zuzendaritza artistikoan izaten da arrakasta edo porrotaren sekretua. Komikia zinera eramateko modu asko dago, baina komikiaren izpiritua errealtateko paisaietan txertatzea oso gutxi lortzen du. Hori da hain zuzen *La gran aventura de Mortadelo y Filemón*-ek eskaintzen duena. Cesar Macarrón-en zuzendaritza artistikoak Ibañez-en komikiaren izpiritua fidelki islatzen du. AEBtako beste komiki batzuekin akaso ez da hain beharrezkoa izaten, baina TIA-ko bi agenteen abentura honi eskertu egiten zaio komikiarekin izandako errespetua.

Zuzendaritza artistikoaz gain, komiki pertsonaiei hezurra eta haragia jartzen dieten aktoreak dira filmeko beste sorpresa. Ez dugu topatuko prentsa arrosotako portadetan, asteburuetako aldizkarietan edo telebista lehiaketetan gonbidatu gisa azaltzen diren aktoreak. Pelikula honetan aktoreak bestelakoak dira. Antzerki munduan, bigarren mailako zine paperetan edota zirkuitu masiboetatik kanpo ibilbide aberatsa duten profesionalak dira: Pepe Viyuela, Paco Sagarzazu, Luis Ciges, María Isbert, Dominique Pinon...Eta eskarmetu handiko aktoreen alboan, aktore izan gabe zuzendariak hainbeste atsegin dituen pertsona anonimo eta bereziak topatzen ditugu. Horien artean, Mortadeloren papera egiten duen Benito Pocino. Casting berezi honi esker, pelikulako pertsonaiak, euren "komikitasunean", sinesgarri izatea lortzen dute.



Komikilari baten moduan filmatzen duen zinegilea.

Fesser-en umorea, haurtzaroan "boy scout"-ekin kanpamenduetara joandako tipo batena da. Surrealista da probokatzaileria izan gabe. Beltza da bortitza izan gabe. Infantilta da haurrentzako izan gabe. Bere aurreko lanetan nabarmena da guzti hau: *El Seclero de la Tlompeta*, *Aquel Ritmillo* (laburmetrai sarituak), *El milagro de P. Tinto* (luzemetraia). Guztieta, Javier Fesser-ek estilo eta begirada propioa landu ditu. Komikilari baten moduan filmatzen du. Plano bakoitza, biñeta baten moduan, indarra eta akzioaz jantzen du. Plano bakoitza, ikuslearen atenzioa erakartzeko dago pentsatua. Plano bakoitzak, detaile ezberdin ugari barneratzen ditu. Eta hori, ziurrenik, publizitatearen mundutik datorki zuzendariari. Fesser publizitatekin zinera salto egindako zuzendaria delako. Gidoi tekniko zehatz baten laguntzaz, onomatopeia bisualez osatutako film honetan, efektu bereziak, efektu digitalak eta soinu efektuak egin dituzten taldeek, lan asko izan dutela susmatzen dugu.




Belaunaldi ezberdinek irakurri dugun Ibañez-en *Mortadelo y Filemon* komikia zinera eramatea erronka arriskutsua da. Konparazio kontutan ez da egoten adostasunik. Baina horrek ez du derrigorrez txarra izan behar. Kontrakoa. Iritzi ezberdinen jabe egiten den pelikula, liburua, komikia,... errealtate anitzak dituen gizarte batean arrakastaz txertatu denaren seinala izan daitekeelako. Ah, eta ahaztu baino lehen, amaiera kredituetan entzuten den kantua, Andy Chango komiki-kantari argentinarrena da.



Mortadelo and Filemon's Big Adventure

Loads of comic-book characters have taken the jump from comics to cinema screens over the last few years. The end results have varied greatly. Many factors influence the outcome of these adoptions. More often than not it's the artistic direction that makes or breaks the film. There are a whole heap of ways to transfer a comic to the big screen, but very few manage to infuse the film with the true spirit of the comic book. "La Gran Aventura de Mortadelo and Filemon" has hit the nail smack bang on the head in that department. Cesar Macarron's artistic direction remains loyal to the comic-book spirit of Ibañez and it shows. With some of the American comic-book characters, said direction isn't all that necessary, but this adventure starring the two agents from TIA really gains by the respect shown to the original comic.

Apart from the artistic direction, the other big surprise are the actors who bring the characters from the comic to life. There's not a sniff of the usual brace of actors who plaster their mugs across the covers of every gossip rag available and fall over themselves to be a "guest" on dodgy TV quiz shows. This bunch are seasoned actors who have treaded upon many theatre boards, worked in minor cinema roles and who move around well off the beaten track. Pepe Viyuela, Paco Sagarzazu, Luis Ciges, Maria Isbert and Dominique Pinon are just some of those on show. We are also treated to a host of special anonymous people who are not actors by right, but who have grabbed the director's attention for whatever reason. One of these is Benito Pocino, who plays Mortadelo. This special form of choosing the cast has enhanced the comic-book spirit of the film.



The comic-book film-maker

Fesser's sense of humour is just like that of someone who used to go camping with the boy scouts as a child: surrealist without provocation, black comedy without violence and infantile without being for kids. This is all really noticeable in the work he has done up till now: *El Secreto de la Trompeta*, *Aquel Ritmillo* (prize-winning short films) and *El milagro de P. Tinto* (full-length film). Javier Fesser has come up with his own personal touch and style. He films as if he were thinking in comic-book code. Each scene is like a vignette: racy and action packed. Each one is laced with detail. Every one is designed to reach out and grab the viewers' attention by the scruff of the neck. There's no doubt the director picked all this up during his time working in publicity. Yep, Fesser started off in the world of advertising and then moved onto the big screen. We get the impression that the people responsible for the special, digital and sound effects, helped as they were by a really tight technical script, really had their work cut out for them. They've done an admirable job.


There is certainly a risk in adopting Ibañez's *Mortadelo and Filemon*, seen by generations of us, for the big screen. When the comparing starts, agreement goes out the window. That's not necessarily a bad thing. On the contrary, a film, book, comic, etc, that provokes different opinions just might be seen as a sign of success in a society made up of many different realities. One last thing: the song you hear as the final credits roll up is by Andy Chango, the Argentinean Comic-Singer.

negua central park-en winter in central park

Images / Images / Images / Images
I'm thinking
It doesn't matter what I am thinking
It's the images that are worth repeating
Images / Images / Images / Images
If you're looking for a deeper meaning,
I'm as deep as this high ceiling
If you think technique is meaning,
you might find me very simple

Irudiak / Irudiak / Irudiak / Irudiak
Pentsatzen nago
Pentsatzen dudanak ez du garrantzirik
Irudiak errepikatzea soilik merezi du
Irudiak / Irudiak / Irudiak / Irudiak
Esanahi sakonago baten bila bazabiltza,
sabai hau bezain sakona naiz
Esanahia teknikan dagoela uste baduzu,
oso sinplea naizela pentsatuko duzu

(Images, Lou Reed)



MAKALA DJ SET CD
 "MAKALA PLAYS NOVOPHONIC"
 DUBLATINHOUSENUJAZZSTEADY
 GORA KING TUBBY!!


BOOM SHAKA MAKALA LAKA

NOVOPHONIC 1502
 MAKALA
 "PLAYS NOVOPHONIC"
 <<< NEW CD

NOVOPHONIC 1602
 TRIO KEMPES
 "SUMMER CITY LOVE"
 NEW SINGLE >>>

NOVOPHONIC DISKAK
 Euzkadi Etorbidea 53 9^o Itz.
 20110 PASAJA (Gipuzkoa)
 Tel/fax: +34 943 398 847
 www.novophonic.com

DISTRIBUTION:
 SO DENIS / UNIVERSAL
 Euzkadi Etorbidea 157 / 08008 BCN
 Tel: + 34 933 568 520
 www.sodens.com



BIG DADA
ZEA MAYS
DOMINIQUE A
ZINER ETA ROCK IZARRAK
THE CLASH+ DJOS DE BRUJO+
TAPIA ETA LETURIA+ BORROKAN+
BETAGARRI+ iDi BiHOTZ+ SHIPPING NEWS...
RATOS DE PORAO
21 URTEKO OLDARRALDIA



KURAIA

Kuraia (M007CD)



SORKUN

Onna (M020CD)




EH SUKARRA

Galtzailearen egunak (M017CD) +CDROM



LIF

* (M003CD)



ETSAIAK

Kaos (M008CD/MC)
Luzemetrala (M004VHS)



SAGARROI

Meatzaldea (M002CD/MC)



T.L.T.

Minus (M011CD/MC) + CDROM



SEN

Gaizki esanak... (M012CD/MC)



SELEKTAH KOLEKTIBOA

Esperientzien etorbidetik (M013CD)



Basque Electronic Diaspora#2 (M001CD)



Arnasa hartu (M021CD/MC)



FERMIN MUGURUZA

In-komunikazioa (M018CD/MC/LP) + Bideo



BASQUE ELECTRONIC DIASPORA

Basque Electronic Diaspora#3 (M023CD)



BETAGARRI

Remix (M006CD)



XABIER MONTOIA

Ni ez naiz (M022CD)




JABIER MUGURUZA

Hain guapa zaude (M005CD)



SKUNK

Kinki (M019CD)




RUPER ORDORIKA

Hurrengo goizean (M009CD/MC)



PIL-PIL SESSIONS



-GAÑU

Kutxa beltza (M015CD)
5 abesti-canciones-tracks
+ 5 Bideo-Videos



100% COLLEAGUES

(M016CD) 2CD

alter Metak



HECHOS CONTRA EL DECORO

Disco de apoyo a Thomas Miller-EI (M024CD+)